



**Koldo Aldalur**

◆ KAZETARIA

## Almitza

BERNARDO ATXAGAREN burutazioekin zerikusirik ez duen soinu-jolearen semea den aspaldiko lagun bat badut, eta grazia ikaragarria egiten dit duen ohitura batek: gustuko ardoari hitz egiten dio. “Nor dabil hor?”, galdetu ohi dio ardoari tragoxka jo aurretik, ikusten ez badu ere antzematen duelako zer bait bizirik eta sasoiko badagoela eskuetan duen kopa barruan.

Antzeko zer bait gertatu izan zait Almitza Sega Elkarteko berri izaten dudanean. Hor daude, zarata handirik atera gabe, baina beti lanean, gure herriko usain goxoa zabaltzen Europa zaharrean zehar.

Orain hemeretzi urte hasi ziren hemen herri bat badela eta bertako batzuek segak asintzen badakitela aldarrikatzen gure mugaz harat. Harrezkero hamaika belarditan aritu ondoren, Finlandia, Suitza, Alemania, Hego Tirol, Eslovenia, Katalunia, Okzitania eta beste hainbat bazterretan badakite nortzuk garen, gure kulturak zer dioen eta gure segalaritzak zer nolako maila duen.

*Abuztuaren 28tik 30era, Munategi baserria izan zen belardian, Loiolako Santutegiko atzealdean, Azpeitian, Europako Sega Txapelketa jokatu da. Eta gu beste herri bat izango gara hizkuntzen zelaian, gure ereserkia segapotoan dugula azalduko gara, gure koloreak bihotzetan, gure egiteko erak arretaz zorrotzurik*

Metodologiak harritzen nau gehien, gauzak egiteko erak, alegia. Ez naiz ni hasiko orain epaitzen zein bide den zuzena eta zein okerra gure helburuak lortzeko. Handiak lehen ere gehiegi daude gurean, baina Almitzako hauen jarduna dut gustuko. Zarata gutxi eta lana beltz. Joan, ikusi, aztertu, hitz egin, adostu, ekarri, erakutsi, amore eman, errespetatu, onartu, abestu, amestu, eskatu eta lortu. Gure herri honetan sarri ordenan jartzeko gai ez garen aditzak dira. Askotan elkarren gainean pilotzen ditugunak. Haserretu, zatitu, etsi, beldurtu, egoskortu eta abarrez aldatu ditugun aditz oinarrikoak.

Eta sega kolpe bat hemen, beste bat han, ondorioak begi bistan ditugu. Abuztuaren 28tik 30era, garai batean Munategi baserria zen belardian, Loiolako Santutegiko atzealdean, Azpeitian, Europako Sega Txapelketa jokatu da. Eta gu beste herri bat izango gara hizkuntzen zelaian, gure ereserkia segapotoan dugula azalduko gara, gure koloreak bihotzetan, gure egiteko erak arretaz zorrotzurik. Eta orduan libreago sentitzeko modua izango dugu, politikarien diskurtsorik gabe, zer egin behar dugun esateko goitik bidalitako agindurik gabe. Kontxo, horrelakoetan zein gustura erabiltzen diren “gara” eta “dugu” aditzak!

Segak eta lagunak, emakumeak nahiz gizonak lehian garaile izateagatik, ohartu gabe horrelako ekitaldi bat antolatzeke gai den herria libre dela berez, gainontzekoek diotenari kasu egin beharrik gabe.

Almitza ongarritu gabeko lekuan hazten den belar askea eta egoskor xamarra da. Abuztu amaiera aldean beste zita bat dugu garenarekin eta izan nahi dugunarekin Loiolako Santutegian. Segi segak zorrotzen. ■

**Iruñeko Planetarioa**  
 Antso Ramirez kalea, z/g  
 Iruñea  
[www.pamplonario.org](http://www.pamplonario.org)